

Eztai batzuetan ezkon-berriai zuzendutako bersoak**Bersolariak.**

Baimena eslatzen diet
bazkaldar Jaunai,
esateko itz pare bat
ozkon berriai.

Maipurukoak.

Guzion ordez dizut
baimena ematen,
ea, asi bereala
nai dezuna esaten.

Bersolariak

Denbora asko bai da
nere José Mari,
begira zegoziola
gaurko egunari:
¿ta zér esango diot
zure alderdiari?
biotzean zeukala
deseo berori.

Eleizak gaur zaituzte
utzi lazotuak,
botarikan gañera
bedeinkazioak:
orrela bete dira
zuen desioak,
dударик jarri gabe
justu ta santuak.

Ordu onean bada,
zu, jaun Jose Mari,
uztartu zatayozka
Andre Alejandrari;
luzaro gozatzeko
atsegiñ ugari,
amorio leyala
gordeaz elkarri.

Amorio orren frutuak
pozez zoratuak
utziko baidituzte
zuen gurasoak,
ikustean illobak
edo ondorengoak
ta aiton-amon egiñik
berperen buruak.

Baña arrosak bezela
beti arantzakin,
ala oi dira atsegiñak
miñ samiñarekin;
gaitz au Eva emazteak
ariñkeriarekiñ
zion ekarri Adani
bere ondorengoakiñ.

Lege onen pean gaude
guziok jarriak
ez are gichiago
senar emaztiak,
oyek dituztenean
aldarte trsiteak
kontsolatu ditzala
Jau naren graziak.

¡O senar ta emazte
piedadez beteak!
igaro pazienzian
zuen atsekabeak,
Jaungoikoari eskeñi
pena-naigabeak
ichedonaz zeruan
atsegiñ obeak.

Urte asko dizutet
opa elkarrekiñ
gero eta gerago
bata bestearekiñ
zuen amorioan
sendotzearekiñ,
zuri, Jose María
Alejandrarekiñ.